

Komunikazioa →

Astun-lehena

Ekografiak
Eñaut Gantxegi

Kiroletan ez ezik, errota-zioa telebista ikustean egin daitekeen zer edo zer da. Astelehen honetan, horretan jardun nuen, ardatz hauek izanda: *G-20*, *CSI*, *Bi errepedean* eta *Platô 2.0*. Esan bezala, *G-20*.

Bertan deigarria egin zitzaidan 3 urteko haur bat hiltzeagatik in-justuki hedabideek hiltzaile eta bortxatzailetzat jo duten Diego-ren aldeko mezua, bereziki etxe berdineko (T5) albistegietan emandako berria hartu baitzuten adibidetzat. Ea krimenik egin ez duten hainbat errugaberri bar-kamena noiz eskatuko dieten (Auzitegi Nazionalarekin baka-rrik saio berezi bat egin beharko litzateke helburu horrekin). Sal-to. *Platô*-ra. Bertan, egoera politi-koaz *El Mundo*-ko Josean Izarra («munduko izarra») entzutea II. Mundu Gerran famatu egin zi-

ren Panzer bat entzutea bezala. Kaleko iritzia iri tartea utzita, gizartearen kezka baino gehiago batzuetan biktimofilikoak direla argi erakusten duten batzuen iri-tziak jarri zituzten. Non —eta ez dut Bilboko manifa aterako— euskal presoen inguruan izaten ari diren hausnarketan printza-datzoren bat?

Krimenak ere, eta ez nolana-hi-koak, kate bereko telesaail yankee batean aurki daitezke, forense eta bestelakoen arteko ikerketa delarik gai nagusia. *CSI*, kasu honetan Miami hirian grabatzen dena. Las Vegas eta NYen anaia

tropikalak hiri berean grabatur-i-ko *Miami Vice*-en aire delizius bat dakarkigu; noski, Cane ez da Crocket, eta 80ko hamarkadako telesaailak musika hobea zuen. Aste honetako atalean honako irudi hau agertzen zen: odolez bustiriko gazte bat, nora ezean eta zer egin duen gogoratzen ez duela. Inguruan ditugun erresu-ma inbaditzaileek (gerora estatu-tan birziklatuak) euren odol-pea-jea ahazteko duten jarrera amnesiko-selektiboaren metafo-ra. Sardui eta Aristiren saiora honetan Miami hirian grabatzen dena. Las Vegas eta NYen anaia

an, bai *CSI*-n, baita *Bi errepedean*-en ere hildakoak: batean animaliak, bestean giza-kiak. *Death must go on* (herio-tzak jarraitu behar du) *leitmotiva*-ri esker ez balitz, zine-ma industriak akaso hainbeste-ko negozioa egingo al luke? Nola litzateke E/TB2k emango duen *Aitabixia*-z heriorik gabe? Noiz-ko film hau jatorrizko bertsoian euskarazko azpidatziekin? Kule-txov-ekoentzako etxeko lana.

Floridatik Kaliforniara, «jarraituko naiz» zioen jurista oiar-tzuar a-dependientista baten kon-painiara. Amai dezagun *CSI*...

‘Censored 2010’ izenburupean, 2008an eta 2009an komunikabide handiek zentsuratutako 25 istorio aukeratu ditu Kaliforniako Sonoma unibertsitateak.

Obamak badu zertaz lotsatua

Urtzi Urkizu Donostia

Komunikabide boteretsue-nek albisteak eta gertaka-riak zentsuratzen dituz-tela jakina da. Baina aditu gutxi zentsuratutako ber-rien zerrendak. Kalifornian (AEB), Sonoma State unibertsita-tean, 30 urtetik gora daramate zentsuratutako berriak jaso eta aukeraketa bat aurkezten. *Project Censored* izeneko ekimena da. Herritarrek 2008-2009 urteetan bi-dalitako berrien artean, Peter Philipsek eta Mickey Huffek 25 aurkeztu dituzte. Horietako asko-k AEBetako botereen gehiegi-keriak salatzen dituzte. Honatz zerrendako aurreneko hamar be-riak:

Nola Wall Streetek AEBetako Gobernua menperatzen duen

2001etik 2009ra, AEBetako zortzi enpresa handik 64,2 milioi dolar eman dizkiete Legebiltzarreko hautagaiei, bai errepublikanoei bai demokratei. Enpresa horien artean inbertsio bankuak, asegu-ru etxeak eta hipotekaren erral-doiak daude. Dirutza jaso duten legebiltzarkideek erabaki dute ondoren TARP programako 700 mila milioi dolar zeini eman.

AEBetako eskolak bereziago daude egun, arrazagatik Familia beltz eta latinoetako mi-

laka neska-mutiko eskola berei-zietara doaz. Eskola publikoak 50eko hamarkadan baino berei-ziago daude, arrazagatik.

Ontziek hondakin toxikoak husten dituzte Somali-
an

Nazioarteko komunitateak gerra deklaratu die Somaliako piratei, baina babestu egiten du hainbat herrialdetako ontziek egiten du-ten isileko arrantza (eta legez kanpoko). Horrez gain, itsasontzi askok hondakin toxikoak hus-ten dituzte Somaliako uretan 1991. urtetik hona. Legez kanpo ari diren ontziek 450 milioi dola-rreko balioa duen arrantza egiten dute urtero ur horietan.

Ipar Karolinan zabortegi nuklear arriskutsu bat dago

AEBetako Ipar Karolina esta-tuan Shearon Harris zentral nuk-learra dago, eta handik oso ger-tu, zabortegi nuklear arriskutsu bat. AEBetan hondakin erradiak-tibo gehien dagoen lekua da.

AEBetako jostailu askotan produktu toxikoak daude

AEBetan ez dago lege zorrotzik gai toxikoen gainean; merkurioa erabiltzen dute ezpainetakoetan eta italoak jostailuetan. Euro-pako herrialde batzuetan halako gaiekin zorrotz jokatu nahi dute, eta ondorio toxikoak aztertu.



Pentagonoko ustelkeria da zentsuratutako albisteetako bat. Irudian, Robert Gates, AEBetako Defentsako idazkaria. SHAWN THEW / EFE

Presio taldeek AEBetako Legebiltzarrak eresia dute

Lobby-ek edo presio taldeek era-gin izugarria dute AEBetako bo-tere publikoetan. 2008. urtean Le-gibiltzarrek, Etxe Zuriak eta bo-tere judizialak 3,2 mila milioi dolar eman zizkieten presio talde-etako kideei, aurreko urtean bai-no %13,7 gehiago.

Pentagonoan ustelkeria da nagusi

Barack Obamak Robert Gates errepublikanoa Defentsako idaz-kari mantentzearekin, Bushen administrazioiko militar batzuk Pentagonoko funtsezko kargue-tara heldu zituen. Gates Irakoko gerrako bultzatzaileetako bat da. Halaber, William Lynn Defentsa-ko agintariak ezin omen du azal-du Pentagonotik 3,4 bilioi dolar nola desagertu diren.

Bankuek dirutza bidaltzen dute zerga paradisu-
etara

GAOk egindako ikerketa baten arabera, AEBetako 83 konpainia garrantzitsuk milioika dolar bi-dali zituzten Kaiman uharteak, Ber-mudak eta Birjina uharteak zerga paradisu-
etara. Horietatik hamalau Gobernuaren diru laguntza ja-so zuten bankuak ziren. Suitzako Union Bankek ere dirutza bidal-tzen du zerga paradisu-
etara.

Gazako gerra krimenetan AEBetako armak erabili ziren

Israelek, Gaza bonbardatu zuene-an, AEBetan fabrikatutako fosfo-ro zuriko bombak erabili zituen. Human Rights Watchek argitara-tutako txosten baten arabera, bombak zibil asko bizi ziren lekue-tan jaurti zituzten eta fosforo zu-riak ondorio beldurgarriak era-gin zituen.

↓ Zentsuratutakoak

BESTE HAMABOST BERRI

- Palestinako okupazioa interes korporatiboetan dago oinarritu-ta.
- Mike Conell «boto lapurra-ren» heriotza misterio-sua.
- *Katrina*-ren ostean, eraso arrazistak New Orleansen.
- AEBetako legebiltzarkideek irabaziak dituzte Irak eta Afga-nistango okupazioei esker.
- Karbonoarekin negozioa egi-ten du Munduko Bankuak.
- AEBek Haitin duten base mili-tarra zabaltzen ari dira.
- Nazioarteko Zigor Gorteak AEBek Sudanen duen gerra se-kretua babesten du.
- Naturaren eskubideak, Ekua-dorko Konstituzioan.
- AEBetako bankuek langileen aurkako kanpainetarako dirua jartzen dute.
- Obama-McCain eztabaidak, kontratu baten menpe.
- Familia txiroei laguntzak mu-rriztu dizkiete AEBetan.
- Batzorde Trilateralak agintzen du AEBetan.
- Ekintzaileen protestaldiak Uraren Nazioarteko Foroan.
- Bankuek AEBen zabalpen mi-litarra finantzatzen dute.
- Petrolio eta gas enpresek Amazonia mehatxatzen dute.

Ekuadorrek bidegabetzat jo zuten kampo zorra

2008ko azaroan, Ekuador aurre-neko herrialdea bilakatu zen kan-po zorraren zilegitasuna aztertu eta kolokan jartzen hasi zena. Kontu ikuskatze independente batek ehunka irregulartasun aur-kitu zituen kampo zorraren kon-tratuetan. Maileguek Ekuadorko legeak, AEBetako kaudimen bat-zordeko arauak eta nazioarteko zuzenbideko oinarriak urratzen zituela ondorioztatu zuten.